

*Prensa oharra*

## **442.000 IKASLEK BAINO GEHIAGOK PARTE HARTU DUTE EROSKI-REN ELIKADURA ESKOLAN 2018-2019KO IKASTURTEAN**

- Programak Espainiako Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailak hartzen ditu, eta ikasle guztietatik %15ek baino gehiagok esku hartu dute ekimenean
- Espainiako Lehen Hezkuntzako ikastetxeen %44,14k parte hartu dute programan 2013an hasi zenetik
- Ekimen honen asmoa da ikasleak sentsibilizatzea, eta erakustea zeinen garrantzitsua den modu orekatuan elikatzea eta bizimodu osasungarria egitea
- Ikasturte honetan, tailerren saio didaktikoak berritu dituzte, eta programa indartu dute berrikuste modulu berri batekin eta bisita gehiago antolatuta tokiko beste ekoizle batzuegana
- EROSKI Fundazioaren Elikaduraren Heziketa Programa saritu egin zuten, 2016an Espainian landutako GEK komunikazio-ekintzarik onenetako bat izan zelako.

Elorrio, 2019ko uztailaren 4a.- Zazpigarren ekitaldia izan du *Elikadura eta Ohitura Osasungarriari buruzko Heziketa Programak* (PEAHS), eta Estatu osoko 442.677 ikaslek parte hartu dute, 3.253 ikastetxetatik etorriak (Lehen Hezkuntzakoak guztiak). [EROSKI Fundazioaren Elikadura Eskolak lantzen du ekimen hori](#). Espainiako Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailak hartzen ditu programak, eta ikasle guztietatik %15ek baino gehiagok esku hartu dute ekimenean; Espainiako Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietatik %23,4k parte hartu dute amaitu berri den 2018-2019ko ikasturte honetan. Aurreko ikasturtearen aldean, oro har eutsi egin zaio partaidetzari, eta igo egin da, nabarmen, EROSKI erreferentziazkoa den tokietan, non partaidetza %153 igo den eta ikastetxe kopurua %144. Datu horiek erakusten dute programak balorazio baikorra izan duela; gainera, lau urte honetan zazpi bider handitu da partaide kopurua.

Programa 2013an abiatu zenetik, Espainia guztiko Lehen Hezkuntzako ikastetxeen %44,14k eman dute izena. "*Gure heziketa programaren helburua zera da, Lehen Hezkuntzako haurrak eta haien ingurunea sentsibilizatzea elikadura orekatua eta ohitura osasungarriak hartzeaz, horrela jaitsi ahal baita obesitatea, gero eta ugariagoa dena, nola eta beren neurrira eginko programa honi esker, zeinak sano*

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

*jaten eta bizkor hazten erakusten baitie"*, esan du EROSKI Fundazioko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak. *"2013an jarri genuen abian programa hau, eta geroztik, 6.139 ikastetxetako 1.311.157 ikaslek parte hartu dute"*, esan du.

Osasunaren eta Iraunkortasunaren konpromisoetatik hirugarrenari dagokio, eta haurren gizentasunari aurre hartzeko asmoz egina dago. Programa egiteko, Batzorde Zientifiko bat egon da, zenbait arlotako profesionalekin: medikuntza eta pediatria, nutrizioa eta dietetika, psikopedagogia eta pedagogia. *"Urtez urte, programa bizkortzen eta hobetzen ari da bertan parte hartu duten irakasleen balorazio eta ekarpenei esker"*, azaldu du EROSKI Fundazioko zuzendariak.

### **Ikasturte honetako berritasunak**

Ikasgelan lantzeko hamar saio didaktiko ditu programak, eta beste hiru tailer praktiko ditu ikastaldia osatzeko. Ikasleek eresketa osasungarria egiten ikasten dute EROSKIren denda batean, eta aukera dute elikagaiak ekoizten dituen nekazari baten etxaldea ikusteko, bertatik bertara ezagutu dezaten janaria nondik datorren.

Edukien medioz, elikadura orekatuaren oinarriko elementuak erakusten zaizkie ikasleei, eta horrekin batera, ohitura osasungarriak, tokiko produktuen gaineko ezagutza eta munduko kulturetako dieta askotarikoak; gainera, planetaren iraunkortasuna nola landu erakusten zaie. Elikadura Eskolaren kolaboratzaileak dira Unicef, WWF eta Bihotzaren Espainiako Fundazioa, eta heziketa programako edukien zati bat prestatu dute.

2018-2019ko ikasturtean, 1.000 tailer baino gehiago izan dira EROSKIren 201 dendatan, eta 24.000 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute. *"Aurten, dendan egin ohi ditugun tailerrak birformulatu ditugu, dibertigarriagoak eta didaktikoagoak izan daitezen, eta beste tailer formatu bat eratu dugu dendarako, 'Ikasgelako chefa' izenekoa; horrez gain, familian egiteko moduko jarduerak ere sartu ditugu, horrela ikasgelan eta tailerretan ikasitakoa praktikan jarri ahalko dute etxean"*, azaldu du Martinez Berriochoak.

Ikasturte honetan, eduki eta jarduera gehiago txertatu dira programan. *"Beste formatu batzuetan egin dugu 'Ikasgelako chefa' tailerra; esaterako, bideo bat egin dugu, eta tokiko elikagaien ekoizle kopurua igo, tailer gehiago izan daitezen; izan ere, arrakasta handia dute. Horrekin batera, ikasbideak berrikusteko modulu bat sartu dugu, programaren osagarri; horrela, hiru hilean behin azpimarratu diegu dieta osasungarriak eta orekatuak nolako garrantzia duen elikatzeko orduan, eta aldi berean, unitate didaktikoen jarduerak gaurkotu ditugu"*, azaldu du EROSKI Fundazioako zuzendariak. Hala berean, Imagine Food errezeta osasungarrien gaineko marrazki lehiaketak arrakasta handia izan du hirugarren aldi honetan formatu berri batekin. 2019-2020ko heziketa programan interesatuta dauden

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

##### **CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



ikastetxeek izena eman dezakete, [www.escueladealimentacion.es](http://www.escueladealimentacion.es) webgunean edo 946 072 841 telefonora deituta.

### **Aitorpena, ohitura osasungarriak sustatzeagatik**

EROSKI Fundazioak elikadura osasungarriagoa sustatzeko sortu duen heziketa programak aitorpen ugari izan ditu. Besteren artean, OCARE saria, iaz irabazia, "gizarte zibilari begirako GEK komunikazio kanpainarik onenagatik". [OCAREK, enpresa-erantzukizunaren komunikazioa eta ekintza behatzeko entitateak](#), saritu egin du *Elikadura eta Ohitura Osasungarriei Buruzko Heziketa Programa*; sariarekin aitortu diotenez, GEK komunikazio-ekintzarik onenetako bat izan da 2017an Espainian. OCARE sarien helburua da aitortzea zein ekimen eta ekintza izan diren onenak GEK Gizarte Erantzukizun Korporatiboren inguruan.

Heziketa programak aitorpen ugari pilatu ditu; besteren artean, "El Chupete" saria Haur Komunikazioaren Nazioarteko Jaialdian, adingabeekin landutako komunikazioa aitortzeko; NAOS saria, Osasun eta Kontsumo Ministerioak emana, kontsumitzaileen osasunerako egindako ekarpenagatik eta ohitura osasungarriak hedatzeagatik; Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziaren Gosasun Zigilua; Herritarren Saria Osasunaren eta Bizi Kalitatearen arloan; eta Nutrizioaren Kataluniako Zentroaren Saria.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)